

## hondo-hondotik

Fito Rodriguez

(EHUko irakaslea)

# Espainiari buruzko doktrinatzeko ofiziala

Izango dugu derrigorrezko ikasgaia Hego Euskal Herriko ikastetxe guztietan berandu baino lehen. J. P. Goebbels, nazismoren propaganda burua izan zenak antzerakoa proposatu zuen bere garaian. Hona hemen horretaz bi gogoeta.

Bat: Goebbelsen egiek Egia osatzen dute, horrela, letra larritan. Hau da, berak emandako datuek nahiz beraiekin eraikitako esakunek ez dute zehazkizunik onartzen. Egia biribiltzat hartzen dira, eta kito. Berarentzat, herriari zor zaion informazioak laburra bezain errepikakorra behar du izan, ulermena nozitu eta zailtzeko besterik balio ez duen inolako xehetasunik gabea.

1927an, honela zioen: «Propaganda modu lauan adierazi beharra dago... Propagandak etengabeko berresanaren premia du». Goebbelsentzat, zalantzarik gabe, komunikabideak propaganda dira: hedabideak.

Bi: Ezin da iritzia moldatu informazio gabe, baina, era berean, ezin informazio gabe. Datu lauak, beraz, iritzia moldatzeko baliagarriak izateaz gain, alde aurretik oinarrituriko aburuen arabera ulertu behar dira. Propagandak ere, beraz, bere heziketaren beharra badauka eduki. Orduko *Doktrinatzeari buruzko Mintzaldia*-n Goebbelsek nazionalsozialismoa definitzen du «pentsamendu historiko» gisa, erabateko alemana eta, ondorioz, Alema-

niatik bertatik kanporagaitza eta helarazina. Hitzez hitz, pentsaezina ere egiten zitzaion ustezko Espainia nazionalsozialista behar bezalako «pentsamendu historikorik» zabaldu gabe.

Orain arte, bada, Goebbelsen ekarpen simple bezain mamitsua. Hemendik aurrera, berriz, gure egungo abaguneari buruzko hausnarketak.

Bat: Euskal Herria tartean dela, argia da ustezko Komunikabiderik dagoenik nekez esan daitekeela, alde desberdinen arteko komunikazioen partez norabide bereko komunikatuen zabalpen errepikakorra besterik ez baita antzematen. Izan ere, egungo egoerak, azken uneko hedabide digitalen banaketa eta guzti, antz handiago du Orwellek asmatutako 1984 eleberriko «Egiaren Ministerioarekin» demokrazia bermatu behar duen informazio askatasunarekin baino. Zioak zio, kanpo eta barne zentsurak dira egun ustezko komunikabideetan lan egiten dutenen esperientzia subjektibo hedatuena. Sektorean, gainera, abiada bizian ideologia berberaren monopoliorantz doan jitea dugu objektiboki joera nabarmenena (Telefonica, kate estatalak, *Abc*, *El Mundo*, Tele 5, etab...).

Bi: Franco hil zenetik orain lehenengo aldiz, Goebbels zenak salatu zuenaren aurka, «pentsamendu historikoren» hedapena hasiko da ziurtatzen Espainiako hezkuntzan «Humanitateen dekretuaren» bidez. Hau da, aben-

duaren 22rako Espainiako Ministro Kontseilura eraman nahi duten «Gizagaien irakaskuntza berrantolatzeke aginduak» ekarriko du Espainiar Historiari buruzko edukien %400ko igoe-ra, eta kronologian zein diseinu kurrikularrean Espainiaren Egiaren arabeko eraketa zaharberitua. Baina *Abc*-k zioenez, «lege neurri hauek ez dira izango irakaskuntza hobetzeko prozeduraren bukaera, baikik eta Espainiari beharrezkoa zaion birmoldaketa legal handiago baten ataria bakarrik...».

Nazismoaren garaian Goebbelsek nahi baina ezinezkoa iruditzen zitzaizkion gizarte-ezaugarriak ari dira erdiesten, beraz, egungo Espainiar Estatuan. Bai informazio bide estandarizatuak baita formazio bide arautu berriak iritzi publikoak trinkotzen dute. Hau da, datuak eta haiek antolatzeke ardatzak eman ondoren, nahi duguna pentsatzeko aske garelara sinestarazi nahi izango digute!

Informazio nahiz formazio bideen jabe estatua izanik, beste burujabatasun mota posible dela pentsatzea ere!... Joseph Paul Goebbelsek bere buruaz beste egin zuen (1945-04-30), baina, halere, prestatuak utzi zituen «geroko propaganda leherkariak», zeinetan etorkizunari buruzko igarkizunak eta gomendioak ematen zituen nazionalsozialismoaren garaipena geroan ziurtatu ahal izateko.

Nazismo berri baten atarian gaude,

### GIZA GAIEN IRAKASKUNTZA

Ministroen Kontseilura eraman nahi den erreformak Espainiar Historiari buruzko edukien %400eko igoe-ra ekarriko du

### KOMUNIKABIDEAK

Abiada bizian ideologia berberaren monopoliorantz doan jitea dugu objektiboki joera nabarmenena

### MOBILIZAZIOA

Iragan beltzaren zaharberitzearen aurrean aske pentsatzeko eskubidea defendatzea beharrezkoa da

Goebbelsek nahi bezala. Naziak estatua hartu zuten hauteskudeetan eta botere legislatibo, exekutibo eta judicialaren arteko mugak ezabatzen joan ziren Egia bakarria fundatzeko. Behar adinako indarra izan zuten, noski. Baina horrekin batera, inguruko sumisioa, kolaborazionismoa eta segidismoa ezinbestekoa suertatu zitzairen.

Horretarako, beraien alde eraman zuten sekulako borroka ideologiko-propagandistikoa, egunkarietan eta irratietan, kalean eta Parlamentuan, iritzi moldaketan eta irakaskuntzaren kontrolean... Iragan beltzaren zaharberitzearen aurrean aske pentsatzeko eskubidea defendatzea inoiz baino garrantzitsuagoa da. *Guk ere, geure eskolaren alde*-ko mobilizazioan elkar ikusiko dugulakoan, agur t'erdii!

## gogoratu

Joxan Elozegi

### DUELA 488 URTE

## Erregeordeak

Abenduaren 12an, 1512an, sortu zuen Espainia berriko errege Fernando Katolikoak *Nafarroako erregeorde* kargua, bere «jabetza eta ahalen menpera berriro bilduriko erreinuan» jurisdikzio zibil eta kriminalaren manua ukan zezan, «gaizkinei eta errudunei beharreko penak eta zigorrak ezarri». Logroñon zen orduan errege konkistatzailea eta Gaztelako aitonen seme nagusietako bat, Diego Fernandez de Cordoba, jarri zuen postu hartan. Beren inguruko artean hautatzen zituzten erregeek eta agintari handiek beren ordezkariak, eta horrela jokatu zuen orduko hartan ere errege aragoiarrak.

Erregearen ordezkaria zen erregeordea eta, hein batean, erregeek historialdi guztietan ukan eta erabili dituzten orde-

karien parekotzat jo daitekeen arren, konkistan harturiko erresuma bateko errege-gobernari nagusi dugu egun. Erdi Aroan, printzea agintari txikitat eta erregea handitza hartzen hasi zen garaian, ahaide eta bestelako kideen artean bilatzen zituzten erregeek ordezkariak, eta eliza kristauak berealdiko papera jokatu zuen zeregin horretan. Horiek ziren garai bateko *tenenteak* edo *lotinantak*,

egungo *teniente* eta *lieutenanten* arbasoak, nolabait esan. Ordezkaritza-premia haiek biziki areagotzen ziren erregeek beren lur eta menpekoen gainekoak baino ardua garrantzitsuagoak zeuzkatenean. Nafarroako lehen errege frantses Teobaldo I.ak, esate baterako, Ponce de Duyme Champagneko zalduna ezarri zuen Nafarroako seneskal 1235ean, eta ugari izan ziren ordudunik erregeorde

atzeritarrak Nafarroan. Tenenteak, lotinantak, seneskalak, gobernadoreak eta, XV. mende bukaeratik aurrera, erregeordeak ukan zituen Nafarroako erresumak.

1512ko abenduan, garbi asko ulertu zuen Diego Fernandez de Cordobak, konkista ziurtatu ez ezik, bere erregearen administrazioa sendotu behar zuela Nafarroako legearen gainetik. Jaun eta jabe jardun zuten ordutik aurrera erregeordeek, armadako eta gainerako instituzio guztietako buru; mugak bazituzten, baina, Espainiako errege ahalguztidunaren izenean, muga haien gainetik iragotzeko giltzaren jabe ziren. 1841eko Itunak ezabatu zuen, itxuraz, erregeordearen irudia. Ez duzue, XX. mende bukaera honetan, erregeordeen urrina han eta hemen aditzen?